



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025eko Otsailaren 4a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Uxue Alberdi

(Elgoibar, 1984)

Uxue Alberdi Estibaritz euskal idazle eta bertsolaria da. Kazetaritzan lizentziatua, 2003an hasi zen Bertso paper lehiaketak irabazten, Durangoko Jule Azpeitia izan zen lehenengoa eta ondoren etorriko ziren, 2006an Xenpelar Saria eta 2008an, bertsolari gazteen Osinalde Saria.

2005ean lortutako Idazle gazteentzako Igartza bekari esker idatzi zuen lehen liburua: **Aulki bat elurretan** (2007). 2007an beste sorkuntza beka bati esker, Joseba Jaka Beka hain zuzen ere, **Aulki-jokoa** (2009) ipuin liburua idatzi zuen. 2013an **Euli-giro** ipuin bilduma argitaratu zuen, eta, aurrerago, **111 Akademiaren saria** jaso zuen. 2017an **Jenisjoplin**, 2020an **Dendaostekoak** eta 2024an **Hetero** argitaratu ditu.

2020an euskarazko saiakeraren **Euskadi Literatura Saria** jaso zuen **Kontrako ezta** lanarekin.

Bestalde, 2010ean Ttartalo argitaletxearen eskutik haur literatura idazten hasi zen, **Ezin dut eta zer?** ipuinarekin eta handik urte batzuetara, 2016an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi zuen 2016an, **Besarkada** izenburuko lanarekin.

Literatura tailerren irakasle, iritzi artikulugile, itzultzaile, irakurle-taldearen gidari, letragile eta beste hainbat alorretan aritzen da lanean.

Bertsotan, **Ez da kasualitatea** eta **Kafkaren aulkia** emanaldien bultzatzaile izan da eta Ainhoa Agirreazaldegirekin batera **Bertso Eskola Feminista** jarri zuen abian.

Hetero



Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: unean bertan egin eta esan ez ziren horiez.

Aitak —odolekoak, kulturalak, politikoak—, maitaleak, adiskideak ageri dira kontakizunotan. Tesi zuzendari, editore eta militante “idealizatuak”; hiru laguneko gorputz bakar bat frenorik gabe aldapan behera; Zarautz, Elgoibar, Kuba —“desira aplastante bat”—; whatsapp bidezko literatura lezioak; ezin bete diren promesak urpean eta naufragatzen utzitako bizi-puskak; hiltzen jarraitzen duen aita bat, alargun igerilari bat. Tarteko jendearen presentzia aztoragarria eta hizkuntzaren dardara bizia.

Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik bere hirugarren narrazio liburuan.

Uxue Alberdiren idazlanak

NARRAZIOA

Aulki bat elurretan (2007) **N ALB**

Aulki-jokoa (2009) **N ALB**

Euli-giro (2013) **N ALB**

Jenisjoplin (2017) **N ALB**

Dendaostekoak (2020) **N ALB**

Hetero (2024) **N ALB**

SAIAKERA

Gertatzen ari da (2018)

Kontrako eztarritik (2019) **396 ALB**

BERTSOA

Atsoak hor jarraitzen du (2018)

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Ezin dut eta zer? (2011)

Marizikina naiz eta zer? (2012)

Txikitzen zaretenean (2013)

Zure denboraren truke (2013)

Txikitzen zaretenean (2013)

Bi kobazulo (2015)

Besarkada (2016)

Poza (2018)

Belarriko kilkerra (2023)

Surflaria (2023)

Uxue Alberdirekin elkarrizketa

Katixa Agirre (Pikara magazine, 2024-12-04)

“Emakumeak etengabe isiltzen gara gure inguruko gizonak salbatzeko”

Deserosoa da Uxue Alberdiren azken ipuin liburua, *Hetero* (Susa, 2024). Deserosoa delako, eta ondo dago hala izatea, isiltzen ez den idazlea, ezker-eskuin banatzera datorren ahots indartsua. Batez ere batzuentzat. Isiltasunera ohitu diren horientzat. Historikoki isiltasunaz baliatu diren horientzat. Zortzi ipuin, urteetako ibilbideak ematen duen botere berri bat, eta are kontu kitatze bat ere biltzen dira *Hetero* bilduma aztoragarrian. Egilearekin bildu gara haren asmoez, bulkadez eta kontradikzioez aritzeko.

Isiltasunaren ideiarekin hasiko gara, edo isiltasuna apurtzearen ideiarekin hobe esanda.

Isiltasuna apurtzea baino, nire espresioari tokia egitea izan da asmoa. Batzuetan, gauza batzuk kontatu ahal izateko, ohartzen zara ezarritako isiltasuna hautsi behar duzula, eta izorrante bilakatzen zaituela horrek. *Kontrako eztarritik* (Lisipe, 2019) argitaratu genuen garaitik, “Isiltasunari buruzko oharrak” izeneko karpeta bat daukat ordenagailuan. Nire idazteko metodoa horrelakoa da sarri, oharrak biltzearena bolada luze batez. *Kontrako eztarritik* atera zenean liburua asko komentatu zen, eta benetan pozik nago liburu hark izandako harrerarekin, baina, era berean,

isiltasun nabarmena sumatu genuen bertso munduko gizonen artean, kontrastea egiten zuena mundu horretatik kanpo gertatzen ari zenarekin. Hau ez da batere arraroa. Errazago seinalatzen dira besteen etxeetako zapalkuntzak eta isiltasun konplizeak, ohikoa da nork bere etxeok ez ikustea.

Zer dela eta da hain zaila, zure ustez, barne injustiziak salatzea?

Badaudelako kontra-indar batzuk. Leialtasuna adibidez, norbait babestu nahia, edo nork bere burua ere arriskuan ikusteko aukera. Geure txokoa idealizatzeko joera ere badugu, batez ere beste zapalkuntza batzuk jasaten ditugunean. Identitate subalternoa barneratuta duten taldeen barneko biolentziak ikustea eta seinalatzea zailagoa da beti. Zapalduak izan garenean kosta egin dakiguke zapaltzaile ere bagarela ikustea, baina Audre Lorde parafraseatuz: zapalkuntza batek ez du beste bat justifikatzen.

Hala ere zure asmoa ez da izan, liburu honen bitartez, testigantza edo aldarrikapen bat egitea.

Ez, noski, fikziozko liburu bat da, ipuinen atzean intuitu daitekeen bizipena neure esperientziatik oso aparte egon ez arren. Esperientzia eta literatura bi gauza dira. Esperientzia denok dugu, baina literatura eraiki egin behar da. Elaborazio hori izan da nire lana. Ipuin bakoitza tentuz landu dut bakoitzak bere narratiba, giro eta lengoaia propioa izan ditzan. Hiru urte eman ditut buru-belarri zortzi ipuin hauek sortzen. Liburuan ez dago konfesiorik, ez dut testigantzarik ematen, pertsonaiak jarri ditut mugimenduan, eta errealitate batzuk erakusten saiatu naiz, baina irakurlea nire egia erostera behartu gabe. Fikzioak babesten du idazlea, baina irakurlea ere bai, ipuinak ez du irakurlea paparretik heltzen. Gure alde itsutik idazten dugula diot liburuaren sarreran, ikusteko gai garen eta ikusteko gai ez garen guztiarekin, eta irakurleak ere hala irakurtzen du: bere alde itsutik.

Ez dago orduan kontu-kitatzerik, nik aurreratu bezala...

Ba, ez. Neure ahotsari tokia egitea dago, isiltasuna lengoaia bihurtzeko saiakera, nahi bada. Oraindik ebatzi gabe daude hainbat kontu nire barnean, eta domestikatu gabeko emozio horietatik abiatzen naiz idazterako orduan, idazteak badu zerikusia aldi berean bila aritu eta kontrola galtzearekin. Nik badut joera dena errelato bihurtzeko, hori terapeuta batek ere esaten zidan, dena eramaten niola xehe-xehe, arrazionalizatua, baina horrek ez du esan nahi dena delakoak eragiten ez dizunik. Nire emozioak amasatzen jarraitzeko idazten dut, ez mendeku bila, inola ere. Baina aldi berean ez naiz inor salbatzeko isildu. Zeren eta hori egitea oso heteroa da, emakumeak etengabe isiltzen gara gure inguruko gizonak salbatzeko, haiek sortutako narratibak babesteko, baita narratiba horiek zapaltzen gaituztenean ere.

Hetero izenburuaz hitz egin dezagun beraz. Izenburu deigarri samarra, baina behin liburua amaituta nahiko ondo ulertzen dena.

Izenburua amaieran etorri da. Ez dago gai bakarra, asmo bakarra, liburuan. Izenburua amaieran pentsatu behar izan dut. Ipuinak banan-banan landu ditut Susako editorearekin, Leire Lopez Ziluagarekin, eta, berarekin hizketan nintzela, behin baino gehiagotan atera zait desenkusa moduko bat: "hau oso heteroa gelditu zait". Nire editorea ez da heteroa eta derrepente ispilua jartzen zidan aurrean, eta ohartzen nintzen ez nintzela ari harremanei buruz idazten, ezpada harreman heteroei buruz. Hala ere, espero dut ez dela izango munduko libururik heteroena [barreak]. Baina azpimarratu nahi nuen hain dela heteroaraua marko edo ideologia edo antzerki edo simulakro naturalizatua, ez baitugu ikusten. Argi apur bat isuri nahi nuen tituluarekin. Gainera, gauza polita gertatu da, Hetero jarriko niola erabaki eta bila jarri nintzen, ez ote zen egongo beste liburuaren bat izenburu horrekin. Eta Montserrat Roig egile katalanaren *Mundo hetero* deritzon liburuarekin egin nuen topo, hain justu ni *Gerezi denbora* (Consonni, 2024) bere eleberri ospetsua irakurtzen ari nintzela. Artikulu feministen konpilazio bat da, oso bere garaikoa.

...”

Kritikak esandakoak

“...Bada, antzeko sentsazioa izan dut Uxue Alberdiren Hetero (Susa, 2024) liburua irakurtzean Irla ipuinarekin topo egin dudanean. A ze muturreko festa! Gure literaturaren Olinpoan bizi den Zeus beraren, hots, Sarriren masailera iritsiko zirenak. Matxiruloak, emakumeekiko mespretxua, indarkeria sexista eta pederastiaren muga dabilzan jarrerak eta ekintzak. Kontu bakarra ibili eta buelta: matxismoa. Adurra iraultzaren irlan.

Denok, edo askok behintzat bai, jakin, baina norbait kontatzera ausartzen denean sentitzen den zirrara hori sentitzen da Irla ipuinak Kubara eramaten gaituenean, 2006. urtera. Euskal Herritik errefuxiatuak bisitatzera joan den espedizio kulturalaren kide izan zen Uxue. Ikusi, entzun eta sentitu zituenak kontatzen dizkigu ipuina idazteko prozesuaren baitan, hala ulertzen dut nik behintzat, egindako elkarrizketa bat ipuin bihurtuz. Denoi erori zaizkigu mota guztietako mitoak. Mozoloen artean mozoloenari ere gutxienez bat: neguko festetan oparien egilearena edo egileena edo hortza eramaten digun saguarena. Gogorra da, denborak momentuaz irri egitera bagaramatza ere. Bada, antzeko desilusioa hartu zuen, helduen eskalan, idazleak, bertotara Kubara joan zenean: iraultza, iraultzaileak, zapalduak, zapaltzaileak. Piztia, Liherrek galdetu, nor da? Erantzuna: zu.

Baina asko jarri dakizkioke, edo jarriko dizkio baten batek, kontakizun bihurturiko elkarrizketari edo elkarrizketa forma hartu eta kronikatik ere baduen testuari, baina artefaktu moduan, belarrondokoak banatzeko gailu bikaina idatzi du Alberdik. Zerikusirik ez Kariben antzeko bidaietan ibili diren gizonen kontakizunekin: Ordorika, Maia, Muguruza. Zergatik ez dituzte gizonezkoek kontatu? Bekaturik ez duenak bota dezala lehenengo harria.

Castillo Suarez irakurri nion behin olerki bakarrak, olerki baten bertso bakarrak ere bai, liburu bat justifika dezakeela. Irla ipuinak justifikatzen du, nire uste apalean Hetero liburua. Irakurri ditudan gainontzeko sei ipuinek, azkena geratu zait zintzilik, lotzen duten haria edo giroa, haien artean oso diferenteak izan arren forma, egitura eta abarrei dagokionez, hain zuzen ere, edo hala jaso dut nik behintzat, gizon heteroek, zisheteroek nahiago baduzu, eragiten duguna da: mina. Gaztetan, haurtzaroan, editorearekin, familian, edozein tokitan. Autobiografikotik asko duen liburu da, eta hala ez bada, berdin dit, dena bezain beste balio didalako niri, izan daitekeenak edo izan litekeenak. Literaturan, artean, noski. Irakurtzeko, eta oparitzeko, liburu bikaina. .”

Joxe Aldasoro / Deia, 2024-11-16

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Uxue_Alberdi

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=761>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9052>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9060>

Pikara magazine

<https://www.pikaramagazine.com/2024/12/emakumeak-etengabe-isiltzen-gara-gure-inguruko-gizonak-salbatzeko/>